

Amontzea

AMONA MANTANGORRIA etxean sortu eta haz daiteke. Udaberrian eta udan nonahi jartzen dituen arrautzak bildu behar dira. Horieta-tik beldartxoak jaioko dira, metamorfosian barrena, amondu aurretik pupan bilduko direnak. Beldar edo amona, zorri eta kotxinila barra-barra jango dute. Sagastian, baratzean... Intsektu zurrupatzaile jendaila zital hori apopilo duten landareetan zabaltzeko amona haztegia moldatu etxean. Aise egingo duzu, arnasa hartzearen hurrengoa da errazean, eta ez zara damutuko. Intsektizida zakar eta pozoitsuak alde batera uzteko era samurrena.

Amona mantangorriaren arrautzak multzoka aurkituko dituzu. Hostoen azpiko aldean, zorri edo kotxinila izurritea den tokitik urrutira gabe edo bertan, intsektuen tartean bertan. Errun berriak badira, beilegiak. Gerora gorritu eta atzanean belztu egingo dira. Hori-hori horiek bildu. Ontzi batean, toki epel edo bero batean jarri, baina ez eguzki galdatan. Behin arrautzak belztuta, barruan beldartxoa bizi-bizi dago, irteteko amorratzen. Tenperaturaren arabera bi eta zazpi egun artean arrautzak zabaldu eta beldar beltx tikiak ikusiko dituzu.

Hankatxoak izango dituzte, sei, eta itsu eta hego gabeak izanda ere, jatena bilatzeari ekingo diote, irrika biziz. Ordurako, zorriak dituen adar muturren bat jarri aldamenean. Zorriak ahoan duen eztena txistu sartu eta landarearen izerdia zurrupatzen du; txista egiteko bigunena eta izerdi gehiena dabilen tokia adarraren muturra da, punta berria. Etengabe beharko dituzte zorriak. Nahi izatera, zorridun landarean bertan lotu ontzia eta haiek mugituko dira bazkaren usainean. Pare bat zentimetro eskas hazi direnean pupa batean bilduko dira, talo batean bildutako txistor muturraren tankeran.

Zortzi bat egunera, amonduta aterako da: amona mantangorria. Ez da gorria izango, ordea, bizkar gaina larua izango du. Pare bat egunean gorrituko zaio. Bizkarreko kapa gorriaren azpiko tolestutako hegoak zabaldu eta hegan abiatuko da, zorri bila, lehen oinez, orain hegan. Amonduta bada ere apetitua ez du makala izango, zortzi eguneko gosea berdintzeko zorri mordoxka beharko du...



GILLES SAN MARTIN-CC BY SA

Amona mantangorriaren arrautzak hori daudenean bildu behar dira.

Zorriak ere ez dira motzak. Amondu, hegoak garatu eta alde egin dezakete. Inurriak laguntzaile finak dituzte: zorriak landarea zulatzen duenean haren izerdi gozoa jariatzen da. Inurriak, izerdia baliatu ahal izateko, zulatzaileak babesten ditu. Eta amona mantangorriak uxatzen ditu, zorriak jan ez ditzan. Amondutako mantangorri hegadunek alde egingo dute, baina beldar mantsoek inurrien eraso jasanezina izango dute. Mantangorrien lanari laguntzeko, inurriei landarean gora igotzea eragozten zaie: enborrean itsaskorra den gairen bat edo likadun gerriko bat jarri, bertan itsats daitezten. ■

JOSE RAMON MILLAN DE AGIRRE



Lotik harago

LO-BELARRA deitzen zaie bi ahizpei: *Papaver rhoeas* eta *Papaver somniferum*. Lehenak izen ditu, baita ere, ansalakuerda, asunkuerda, kukurruku, melingorri eta mitxoleta. Bigarrenak loerazlea, loeragilea eta opio-belarra.

Lehena labore soroetan nahasia ikusten zen lehen, baita hondartza inguru naturale-tan ere. Bietatik desagertzen ari da: inguru naturalak etengabe hondatzen ari gara eta nekazaritza gero eta industrialagoak gero eta soro txiroagoak dakartza.

Bigarrena ikustera ez gaude ohituta. Lorategi berexiren batean akaso... Hanhemenka, ordea, soroka opio-belar ere topa dezakezu. Argazkikoa Arabako Beranturi edo Berantevillakoa da. Honelako gero eta gehiago ikusiko dugulakoan nago. Opioa sortzeko baliatzen da. ■